



4.3. DIRU-LAGUNTZA LERROA: ZEHARKA EUSKARA SUSTATZEA HELBURU DUTEN BEGIRALE IKASTAROETAN PARTE HARTZEA – 2019. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1. Diru-laguntzaren xedea

Lerro honen xedea da diru-laguntzak ematea, hain zuzen ere, 2018-2019 ikasturtean, euskara sustatzea helburu duten begirale ikastaroetan parte hartzeagatik.

2.- Diru-laguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

Emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2019ko aurrekontuko partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1030.480.07.335.10 – Diru-laguntzak: begirale ikastaroak; zorpeko zka.: A-05/106-2019, 1.000 €.

Diru-laguntza deialdi hau onartzen den unean 2019ko aurrekontua izapidetzen ari bada ere, espedientean jasoa dago alkateak aurkeztu duen aurrekontu proiektuak aurreikusten duela aipaturiko partida.

Oro har, diru-laguntzaren kopuru osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen diru-laguntzak edo laguntzak batuta.

3.- Pertsona onuradunak, diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era

Oro har, dirulaguntzetarako aukera izan dezakete Errenterian erroldatuta daudenak; eskaera egiten den aurretik gutxienez sei hilabeteko antzintasuna eduki beharko da.

3.1.- Honako baldintzak bete beharko dira:

- 2018-2019ko ikasturtean euskara sustatzea helburu duen begirale ikastaroren batean izen-ematea egina edukitzea.

3.2 Eskararekin aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute, ondorengo dokumentuekin batera:

- a) NAN
- b) Eskatzaileak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.
- c) Ikastaroaren egitaraua.
- d) Ikastaroa egin denaren egiaztagiria.
- e) Matrikularen ordainagiria.

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskararak egiteko epea 2019ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra izango da, biak barne.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak



Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da. Beraz, eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

Euskara sustatzea helburu duten begirale ikastaroetan parte hartzeagatik, gehienez ere matrikularen kostuaren adinako diru-laguntza emango da, 300 euroko mugarekin.

6.- Diru-laguntza ordaintzea

diru-laguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak diru-laguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, diru-laguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den dirusarrera bidez.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRENTERIAKO UDALAK 2019 URTEAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.